

22 ARABA

Jugalez ibaiaren ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Jugalez ibaia San Leon menditik (Kantabriako mendikatea) hurbil jaio eta Ebro ibaian amaitzen da, Santa Cruz del Fierrotik gertu, hain zuzen. Ibaiaren goi ibarrean egoera onean mantentzen da ibaia, kontsolidatutako

ibaiertzeko basoa duen igarobide batekin, nahiz eta arroaren beheko aldean, nekazaritzaren presioa dela-eta, ibaiertzeko basoa estutu egiten den. Arroaren goialdean sastrakak eta baso azpimediterraneoko eraketak

dira nagusi. Kantabria-Toloñoko mendilerroaren mendi-adarretan, aldiz, haritz eta pagadi masak txilardi, larre eta belardi eremu txikiekin tartekatzen dira.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,1 km



Ordu 1



· Oinez
· Errepide A-3126



Udalerria:
Zambrana

Hurbileko herria:
Berganzo



Ibaia:
Jugalez



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo.

Kontu handiz ibili ibaia zeharkatzean



677 m



232 m



569 m



130 m



**JUGALEZ
IBAIAREN
UR-JAUZIA**




Jugalez ibaiaren ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Gaztelaniaz "Herrerias" izenaz ere ezaguna den Jugalez ibaiaren ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoko hego-ekialdean kokatua dago, Kanpezu-Arabako Mendialdea eskualdean, Bergantzu herritik gertu, Zanbrana udalerrian. Herrira N-124 errepidetik sar gaitezke eta gero Zanbranara eta Santa Cruz del Fierrora doan A-3126 errepidea hartuko dugu.

Ibilbidea Bergantzu herrian hasten da. Herrigunea errepideari jarraituz zeharkatu ondoren, eskuinaldean dagoen azken saihesbidea hartuko dugu aparkaleku batera iritsi arte; bertan panel bat ikusiko dugu, ingurunearen ezaugarriak azalduz. Jugalez ibaia zubitik gurutzatuta, "Uraren ibilbidea" seinalearekin balizatutako bidezidorrari ekingo diogu. Aurrera jarraituko dugu ibaiaren ezker aldeko bidezidorrean zehar eta bi koma zazpi kilometro inguru ibili ondoren A-3126 errepidera helduko gara. Orduan ezkerrera bira egingo dugu ibaia bilatuz eta, 100 bat metro ibili ondoren, ibairantz jaitsiko gara. Bertan "Uraren ibilbidea" adierazten duen seinale bat ikusiko dugu eta, horri jarraituz, ur-jauzia aurkituko dugu laster. Ibilbidea urteko edozein sasotian egin daiteke, baina euria egiten duen garaian eta urtze-aldien ondoren, errearen emaria handiena denean, ur-jauziak modu paregabean ikusteko aukera izango dugu.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Jugalez ibaiaren ur-jauzia



Jugalez ibaiaren ur-jauzia

